



EBAZPENA, 2024ko urriaren 1ekoa, Etxepare Euskal Institutuko zuzendariarena, zeinaren bidez argitaratzen baita administrari laguntzaile lanpostu bat lehiaketa-oposizio eta txanda ireki bidez betetzeko hautaprobetako lehenengo bi faseetako behin betiko emaitza eta zeinaren bidez irekitzen baita alegatutako merezimenduak egiaztatzeko epea.

2023ko maiatzaren 17ko Etxepare Euskal Institutuko zuzendariak emandako ebazpenaren bidez, ondorengo lan-kontratudun finkoak hartzeko hautaketa-prozesurako deia egiten zen: komunikazio digitalerako teknikaria, sistema teknikaria, administrazioko eta zerbitzuetako teknikari eta administrari laguntzailea. Ebazpen hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariaren 98. zenbakian argitaratu zen 2023ko maiatzaren 25ean.

Era berean, 2023ko abenduaren 29an, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariaren 247. zenbakian argitaratu zen 2023ko azaroaren 27an Etxepare Euskal Institutuko zuzendariak emandako ebazpena, zeinaren bidez argitaratu ziren administrari laguntzaile kategoriako lan-kontratudun finko bat txanda irekiaren bidez hartzeko hautaketa-prozesuaren oinarri espezifikoak eta zabaltzen baitzen aipatutako prozesuan izena emateko epea.

Ebazpen horren 13.1 puntuan adierazten denez, oposizio-lehiaketako emaitza eta kalifikazio guztiak oinarrietako 9. apartatuan adierazitako iragarki-tauletan argitaratuko dira. Horri jarraiki, Eusko Jaurlaritzaren iragarki-taula elektronikoan argitaratu dira oposizio-faseko bi ariketen eta elkarrizketaren emaitzak.

Alegaziorako epeak agortuta, eta aipatutako ebazpenaren 13.5 puntuak diotenari jarraiki, Etxepare Euskal Institutuko zuzendariaren ebazpen bidez argitaratuko da kalifikazio-epaimahaiaren erabakia.

Hori dela eta, Etxepare Euskal Institutuaren antolakuntza- eta jarduera-araudia onartzen duen 2008ko maiatzaren 13ko 88/2008 Dekretuaren 18. artikulua erabera, honako hau



EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.- Konpetentzien elkarrizketako emaitzak behin betikotzat jotzea.

Bigarrena.- Hautaketa-prozesuko lehenengo bi faseetako behin betiko eta guztizko puntuazioak argitaratzea (I. eranskina)

Hirugarrena.- Izangaiei hamabost (15) egun baliouduneko epea ematea hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskabidean alegatutako merezimenduak egiaztatzeko, ebazpen hau argitaratu eta biharamunetik hasita.

Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari. Ebazpen honen aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez diezaiokete interesdunek Etxepare Euskal Institutuko zuzendariari, hilabeteko epean, ebazpena Eusko Jaurlaritzaren iragarki-taula elektronikoa argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakete Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, ebazpena Eusko Jaurlaritzaren iragarki-taula elektronikoa argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Donostia, 2024ko urriaren 1a

IRENE LARRAZA AIZPURUA

Etxepare Euskal Institutuko zuzendaria



I. ERANSKINA

Hautaketa-prozesuaren lehenengo eta bigarren fasetako behin betiko emaitzak

NAN	Izen-abizenak	1. ariketa	2. ariketa	Elkarrizketa	Guztira	Emaitza
***8183**	Lourdes Perosanz Lasuen	19,40	13,25	5,00	37,65	Gai
***2761**	Miren Karmele Moreno Zubeldia	12,20	17,00	6,40	35,60	Gai
***4700**	Javier Romero Fernández	15,00	13,50	4,00	32,50	Gai